

MERKATUARDN SEGMENTAZIOA

Zerbitzua emakumeei zuzenduta dago, baina udaletxea edo diputazioa da bakarra aukera eman dezakeena. Hori Lasarte-Oriako udaletxeari aurkeztuko genioke, irabazirik gabeko asmoarekin eta interes publikoko elkarte bat bezala. Beraz, hasiera batean Lasarte-Orian bizi diren emakumeei eskeinitako zerbitzua izango zen. Lasarte-Orian aurrera ateratzen ez bada eta udaletxeak onartzen ez badu beste aukera bat diputazioarekin egitea izango litzateke, Gipuzkoako diputazioarekin hain zuzen ere.

Horretarako, diruarekin zergatik lagundu behar diguten azaldu beharko diegu; eta hausnartzen egon ondoren jarri ditzazketen eragozpenei soluzioak aurkitzen egon gara. Lehenik, badakigu herrian polizia zerbitzua dagoela eta aitzaki bat izan daitekela gure proiektua ez baimentzeko. Baina horrek badu erantzuna, sexu abusoak gero eta ugariagoak dira gure gizartean eta poliziak ez dira gai abuso guztiak ekiditeko eta kasu gehienetan berandu iristen dira, horregatik gure elkartearen arazo hori konpontzen bakarrik zentratuko litzateke. Bestalde, eraso jasaten duen emakumeak trauma edo gogorapen hori betirako barneratuko du eta hori sahiestearren sortzen da gure proiektua.

Arestian esan bezala, hasiera batean Lasarte-Oriako udaletxea izango zen gure bezeroa, eta herriko 9.481 emakumeak izango dira zerbitzua jasotzen dutenak. Baina etorkizun batean arrakasta handia badu eta funtzionatzen badu beste herrietan ezartzea planteatuko genuke.



Etorkizun batean proiektua aurrera eramateko hainbat bilera egin ditugu Lasarte-Oriako udaletxeko gizarte zerbitzuko zinegotziarekin eta alkatearekin. Zergatiak, gure proposamenak, arazoak eta soluzioak azaldu ondoren, gure zorionerako, prest daudela proiektua baimentzeko adierazi digute eta laguntza eskeini digute sortutako edozein arazo konpontzeko. Gainera, herriko administrazio bulegoak biltzen dituen etxean, “Villa Mirentxu”-n, gela sozial bat edukitzeko aukera eman digute bertan lan egiteko ordenagailuekin esaterako eta horretaz gain, gure bizikletak gordetzeko “Karmengo Ama Birjina” eliza uzteko prest daude. Bukatzeko, Udaletxeak 30.000€-ko aurrekontua bakarrik ematen digu.



Villa Mirentxu